

Iñaki Martínez de Luna

Euskara bai, baina nola?



zagunak dira euskararen inguruan hartu berri diren hainbat neurriek sektore euskaltzaleetan eragin dituzten kezkak. Izan ere, politikari batzuentzat egokia ez ezik nahikoa den planteamenduak, beste sektore batzuen aburuz, galbidera darama euskara.

Zergatiak bilatzen hasita, hizkuntza-jarre-
rei erreparatu behar diegu. Azken finean, gizartean nagusitzen diren jarrerak dira hizkuntza baten eta bere hiztun-taldearen oraingoa eta etorkizuna markatzen dituztenak.

Euskara, EAEko izaeraren ardatz-irudikaria da; alegia, ezinbesteko ezaugarri bihurtu zaigu erkidego honetako biztanle gehienentzat, eta altxor kultural hori zaindu beharra dagoela erabat barneratua dago Euskal Herriko geografia zati honetan. Jarrera horrek duen onarpen zabala egiaztatzeke aukera izan dut hainbat informazio biletaren eskutik; ez dago duda izpirik. Egia da, egungo balioen hierarkian halako kultura-ikurrak ez direla gizartean lehentasuna hartzen dutenak, baizik eta –Zygmunt Baumanen irakaspenei jarraiki– kontsumismoaren inguruan eraikitakoak. Dena den, euskara askorentzat bigarren mailako gaia dela jakinda ere, biztanle gehien-gehienek euskal izaeraren osagai garrantzitsutzat dute gure hizkuntza, “nola edo hala” ulertuta.

“Nola edo hala” horretan datza gakoa, alegia. Izan ere, euskararen biziraupena ziurtatu behar dela zalantzan jartzen ez den arren, benetako auzia da nolako biziraupena eta hori “nola” bideratu argitzea. Euskara hizkuntza nagusi gisa –leaniztasunaren ezinbestekotasuna gogo onez zein txarrez onartuta?– edo gaztelaniarekin batera, biak ala biak berdintasun eta oreka egoeran? Ala gaztelaniaren apaingarri folkloriko gisa, egungo diglosia egoera ontzat emanda?

Galdera horien aurreko erantzuna nolakoa, orain arte euskararen normalizaziorako egin diren ahaleginen balorazioa halakoa, hurrenez hurren, honakoak: a) gutxi egin da eta abiadura horretan ez da inoiz normalduko; b) aurrerapausoak eman dira, baina jarraitu behar da, bi



ALEX LARRETXI

hizkuntzen arteko oreka lortzeko oraindik falta da-eta; c) euskararen egoera hobetzeko nolabaiteko neurriak beharrezkoak diren arren, azken hamarkadetan ezarri diren derrigortasuna eta inposaketa jasanezinak dira. Alde ederra, bistan da, mutur batetik bestera doana.

Posible al da desadostasun horren gainean etorkizun oparorik eraikitzea euskararentzat? Ezezkotan nago, batzuentzat hartu beharreko neurriak direnak, besteentzat askatasun eta eskubide pertsonalaren kontra-koak direlako. Are kezkagarriagoa, neurrien inguruko balorazio kontrajarri horiek hizkuntza-gatazkari irekitzen diote atea, zabal-zabalik.

Ataka larri honen sorburua zein izan da? Batetik, hizkuntza-politikaren inguruko helburu partekaturik ez egotea; ez, behintzat, gizarte gehiengo zabal-zabal batentzat. Bestetik, gizartearen baitako kontsentsu falta horretan oinarritutako tentazioa saihestezina izan da alderdi politikoentzat; hots, euskararekiko politikak arma erasokor gisa erabiltzea.

Badago horren azpian, hala ere, arrazoi sakonago eta funtsezkoago bat: soziolinguistikaz gizartean dagoen ezjakituria. Izan ere, gizarteak ez daki hizkuntza bat berreskuratzeko zer-nolako neurriak hartu behar diren; ez daki hizkuntza-aren egoera ahula neurri bereziekin konpentsatu behar ote den; ez daki euskal hiztunen eskubideak zein gutxi errespetatzen diren...; hainbat gauza ez daki! Ezjakintasun horrekin, jendeak ezin du neurri batzuen premia ulertu, hizkuntza ikasi edo jakin beharra baino ez du ikusten eta, sentimendu horiekin, txotxongilo bat da alderdi politiko batzuen eskuetan. Hauek, lan pedagogikoa egin partez, gizartearen zalantzak eta kezkak baliatzen dituzte euren interesak lortze aldera.

Hortaz, euskararen arriskuez eta soziolinguistikaren konplexutasunaz gizartea ongi jabetuta egotea da egoera hori iraultzeko abiapuntua. Baten batek zioen politika gauza garrantzitsuegia dela politikarien eskuetan uzteko; euskara ere bai. ■

Gizarteak ez daki hizkuntza bat berreskuratzeko zer-nolako neurriak hartu behar diren; ez daki hizkuntza-aren egoera ahula neurri bereziekin konpentsatu behar ote den; ez daki euskal hiztunen eskubideak zein gutxi errespetatzen diren...; hainbat gauza ez daki!